

EUSKALTZAINDIAREN ARAUEN APLIKAZIOA BIZKAIKO TOPONIMIAN (2003)

Arautze lanari ekin aurretik, espreski aplikatuko ziren arauen hautespena egin zen, Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeak emandakoetarik zenbaitek, aplikazio zehatza ez, baina arautze prozesuaren asmo orokorra adierazten baitzuen. Honelako arauak ez ziren beraz toponimo konkretuen normalizazioan aditzera emango. Hala ere, arautzerako lan-taldearen espiritua eta estilo orokorra zehazten dute eta horrenbestez taldekideek ondo ezagutu behar dituzte. Arrazoi hauengatik, hasierako arau zerrenda orokor hartatik zenbait pasarte hautetsi zen toponimoen normalizazioa justifikatu edo azaltzeko erabiliko zirela eta.

Taldea lanean hasi bezain laster, orokorregiak zirelako baztertu genituen arau haietako batzuen beharra ikusi zen eta erabiltzen genuen zerrenda murriztu hartara birgaineratu ziren. Era berean, jatorrizko dokumentuan agertzen ez ziren zenbait arau berri idatzi behar zela eta agertzen zirenetako batzuetan ikuturen bat egin beharko zela ere ohartuz joan ginen praktikarekin, arautegi hori aplikatzen ari baitzen oso toponimia corpus handi baten gainean, eta aldi berean, lehenengo aldia baitzen mendebaldeko euskararen eremuko leku-izenak masiboki arautzeko erabiltzen zena.

Lan-prozesu horren emaitza dira jarraian ematen ditugun ohar eta hausnarketa hauek, toponimiaren normalizaziorako Euskaltzaindiak emandako irizpideak gaitzetsi barik, gehiago zehaztu, osatu eta aberastu aldera eginak, eta asmo honekin aditzera ematen ditugunak.

VI.1.1. BOKALISMOA

VI.1.1.1. Bokal harmonia, bokal-itxitura, amaierako bokalismoa

Bokal harmonia izenburuaren azpian hiru bokalismo mota desberdin biltzen dira arauetan, gure ustetan hobeto bereiztu eta zehaztu behar liratekeenak.

Alde batetik egiatzko harmonia izango genuke, zeinetan aurreko nahiz ondoko hots bokalikoak inguruko bokal bat aldarazten duen, berarekin berdinduz. Gertakari honen izen zehatza, lehen erabiliagoa, *asimilazioa* litzateke. Aldatutako bokal hori edozein tokitan doalarik gerta daiteke, ohikoena hitz barruko posizioa bada ere: *Kanterape* (Bermeoko baserria ahoz *Kantarape* jaso), *Durango* (ondoko bokalak eraginik, ahoz besteak beste *Durango* jaso dena), *Oribi* (Igorreko baserria, ahoz beti *Orobi* jaso dena)... Zenbait kasutan bokalismo honen eragina alboko silaba baino harago ere hel daiteke: *Oxinluze* (Orozkoko auzoa, ahoz *Uxuluxu* eta *Uxuluze* jaso dena). Nahiz eta euskara ez beste hizkuntza batean gertatu eta hitz amaieran izan, era honetakotzat joko genuke *Zariketa* izena ere (Zallako auzoa ahoz *Zariquete* jaso eta 2.1.2. arauan adibide gisa erabilita). Honako kasu hauek guztiak deskribatzeko 2.1.3. araua sortu dugu, bokal asimilazioak desegin eta jatorrizko era arautuz. Hala ere, badaude honelako asimilazio bokaliko batzuk, tradizio dialektal handikotzat jo litezkeenak, hizkera arruntean ere ibiltzen direlako eta inguru honetako hizkeraren fonetismo jatorizat har genitzakeelako. Horrela *Akarregi* (Markinako tontorra eta Mendexako baserria, *aker* > *akar* Bizkaiko aldaketa jasotzen dutenak), *Munurrutu* (Zeanuriko basoa, *urratu* > *urrutu* ohiko harmonia jasotzen duena)... Era honetako harmoniak onartzeko bidea ireki eta sailkatzen duen araua gaineratu behar litzateke, baina bitartean 2.2.1. erreferentzia eman diegu araututako bokalismo hauei. Ondorioz, kasu hauetan ez dugu erabili 2.1.1. araua, bokal irekitze eta hersketa ere bere gain hartzen dituelako eta hori adierazteko nahikoa izan dugulako 2.2.- arau biek. Aldaera

dialektal argia izanik, nahiz eta beste bokalismoak gertatu, bere hartara ekarri da era arautua: *Lubarria* (Mendatako basoa, ahoz *Luberrixe* jaso, aurreko *-u-* horrek eragindako itxitura modernoa ez, baina dardarkari anitzaren aurreko irekidura zahar-zaharra eta Bizkaian tradizionala arautu duguneko).

Bestalde, hitz-amaierako bokalismoak aipatzen dira. Bizkaian kasik leku guztietan automatikoak diren bokalismo hauengatik eskualde batzuetan euskararen eboluzio arinegiak leku-izen batzuk zeharo desitxuratuta jaso dira ahozko inkestetan. Badirudi bokalismo hauek zahar samarrak direla euskaran, hala jasotzen baitira maiz bizkaierazko literatura zaharrear. Ordea, euskara idatziaren batasunaren mesedetan eta azken aldiko joerekin bat eginik, pentsatzen dugu ez direla era idatzietan arautu behar. Gainera ez litzateke zuzena izango hitz amaiera posiziora murriztea, izan ere zenbait hiatoren eboluzioa dela baieztatu daiteke eta ez hitz amaierako fenomeno soilik. Edozelan ere bestelako zehaztapenik behar luke, arauan biltzen diren adibideak fenomeno ezberdinei dagozkie, eta guk ez baititugu denak lantzen ari garen fenomeno honen barne arautuko. Hortaz, arau honen bitartez hitz-amaierako zenbait hiatoren eta beste bokal batek eragindako hersketak bilduko ditugu (*ea > ia, ie, ii, i* eta *oa > ua, ue, u*), eta alde batera utzi jod fenomenodunak. Hortaz justifikatu ahal izan denetan, jatorrizko erara itzuli da eta 2.1.2. araua aipaturik justifikatu da erabakia. Hala *Anbeko koba* (Ereñoko haitzuloa, ahoz *Anbeko kobie* jaso dena), *Alakoa* (Amorotoko baserria, ahoz *Alakua* jaso), *Andarrapea* (lurretako presa, ahoz *Andarrapie* dabilena)... bezalakoak arautu ditugu. Hala ere, arautegiko adibideen artean, esan bezala, zenbaitetan beste era bateko fenomenoak daudela esan daiteke, guk 2.4.1. edota 2.2.2. arauetan bilduko genituzkeenak, batzuetan gainera aurreko bokalerdiak (*i* nahiz *u*) eragiten baitu artikularen itxitura: *Belabia* (Mungiako zuhaitzia, ahoz *Belabixa* jaso), *Minagorria* (Atxondoko zubia, ahoz *Minagorrix* jaso dena)... Markina-Ondarroa aldean egin ohi den *ia > ixi* aldaketan harmonia bokaliko arrunta ere aipa liteke (2.1.3. eta 2.4.1. alegia), baina 2.4.1. eman da bakarrik: *Done Mikel Goiaingerua eliza* (Ereño, besteak beste *Eleixi* hutsa jaso), *Laboraleko egoitza* (Markina-Xemeinen, ahoz *Laboraleko erresidentzixi* bildu eta arautzekotan *erresidentzia* grafia behar lukeena)... Kasuistika anitz honen jakinaren gainean egonik ere, amaierako bokalismoa baizik ez dugu eman aditzera.

VI.1.1.2. Irekidura bokalikoak

Itxitura bokalikoak oso daude automatizaturik Bizkaiko euskaran eta erraz antzeman daiteke zein ote den kausa adibide bakoitzean. Horregatik normalean (aldaketaren testigantza zaharrik ez dagoenean, noski) jatorrizko bokala berreskuratzea jo dugu eta 2.2.2. araua aipatu. Irizpide berbera aplikatu dugu irekidura bokalikoaren kasuan, baina pentsatzen dugu fenomeno hau ez dagoela hain ondo tipifikaturik, hots-ingurua apur bat gehiago zehaztu behar litzatekeela uste dugu hain zuzen ere: *Arriagako atea* (Zeanuriko mendi-adarra, *Arreako atea* ahoskatzen dena), *Madariaga* (Zamudioko baserria, ahoz *Madarea* jaso), *Egilleor* (Zeanuriko baserria, ahoz eta zenbait mapatan *Egillaur* jaso dena), *Egillorko erreka* (Mañariako erreka, han *Aillorko erreka* ahoskatzen dena)...

Oso kasu berezia da, adibidez, dardarkari anitzagatik irekidura bokalikoaren (*e > a*) bizkaieraren ezaugarri ezagun tradizionala dena: *berri > barri, gerri > garri*... Halakoek, konposatuen osagarri izanik, *u* edo *i* baten eraginez itxitura modernoa paira dezakete, era estandarrean hurreratuz. Lehenengoak arauzkoak dira, baina bigarrenak ez: *berri > barri*, baina *Lubarria* arautuko dugu, nahiz eta gaur *Luberrixe* ahoskatu (Mendatako basoa), *Lekunbarri > Leku(n)berri* (Arrieta, Lemoa eta Jatabeko baserriak, agian analogiaz ere lagunduta, Nafarroako herri-izena da-eta). Horrelakoetan tradiziozko era dialektalera bihurtu gara.

Toponimia erromantzean irekidura eta itxiturekin euskaraz bezala jokatu da, hots: joera kontserbatzailea izan dugu eta jatorrizko eretara jo, euskarazko arau berbera aipatuz (2.2.2.): *Arroyo de las Arroturas* (Karrantzako erreka, *Arroyo de las Arreturas* bildu dena), *Fuente del Piojo* (Villaverde Turtziozko iturburua, *Fuente del Piejo* jaso), *Los Cobichos* (Karrantzako sastraka, ahoz *Los Cubichos* jaso)...

VI.1.1.3. Bokal protetikoa

Hasierako arautegian bokal protetikoari buruzko arau bat baino ez zen agertzen (2.8.1.), eta hau erabiltzea egokia iruditu zaigu euskal toponimian bokal protetikoa galdu den kasuetan, batez ere dardarkariaren aurrean, baina Bizkaiko mendebaldeko erromantzean agertu ohi diren bokal protetikoak arautzeko aipatutako araua ez zela egokia iruditu zaigu eta horregatik sortu dugu 2.8.1r. araua. Horrelako adibideetan erabili dugu: *Arreturillas* (Sopuertako tontorra, *rotura* edo *retura* hitzetik heldu dena), *Las Arredondas* (Karrantzako belardia, *redonda* adjektibotik), *Los Arregatos* (Karrantzako belardia, *regato* izen generikotik)...

VI.1.1.4. Kontsonante hiatiko eta epentetikoak

Hiatoan dauden bokal biren artean kontsonante bat sartu ohi da maiz. Kasurik ohikoena 2.4.1. arauak jaso nahi duen jod epentetikoarena dugu. Irizpide hori aipaturik, ez ditugu arautu *-ia > -ixa, -ija, -idza* bezalako aldaketak. Hala ere pentsatzen dugu arau hori birformulatu behar litzatekeela, modu orokorragoan kontsonante hiatikoa aipatuz, eta bere gain beste fonetismo batzuk hartuz. Honen parekoa den *-b-* epentetikoa esaterako, oso erabilia izan da Bizkaiko zenbait hizkeretan eta barietate literariotan (Mogel, Añibarro, Frai Bartolome...). Uste dugu jod epentetiko honen maila bereko gertakaria dela *-ua > -uba* epentesia. Beraz *Eskuagatx* (Mañariko haitz-punta, ahoz *Eskuba(gatx)* jaso ohi dena) eta *Uarka* (Arratzuko auzoa, ahoz *Ubarka*) bezalako kasuetan *-b-* gabeko era proposatu dugu eta 2.4.1. araua aipatu. Era berean, jakina, *lurreta* arautu dugu (eta ez jaso den *lyorreta* ahozko forma), nahiz eta 2.5.5. arauak *lhurreta* eskatuko lukeen. Azken hau birplanteiatu edo birformulatu behar litzateke, esan gabe badago ere, hasierako hiatoez baino ez dela ari uste dugu eta. Bestalde, kontsonante hiatiko batzuk tradizio eta maila desberdinekotzat jo eta epentesidun aldaerak proposatu ditugu 3.7.1. arauan oin harturik: *Igorre* (eta ez dokumentazioak eta gaztelaniazko era tradizionalak eman ohi duten *Yurre*), *Igartza* (Arrankudiagako baserria, eta ez *-g-* hori gabeko *Iartzza*, dokumentaturiko *Yarza* erak iradokiko lukeena), *Ugarka* (Zeanuriko baserria, eta ez maizago dokumentatzen den jatorrizko *Uarka* era)... Hona ekarritako adibide hauen gaineko dokumentazioak XVII-XVIII. mendeetatik datorren fenomeno dela erakusten digu, normalean *-g-* epentetiko horiek hasperenketa edo beste hots kontsonantikoren baten aztarna direlarik.

Aparteko tratamendua behar lukete arrazoi desberdinengatik, hiato horretan dauden bokalak sudurkari izan direlako memoria baldin badago, kontsonante hiatikotzat *-ñ-* jasotzen diren kasuek. Bizkaian ohikoa den *-zione > -ziño* amaiera latinoaren eboluzioaren antzeko zerbait gertatzen zaio zenbait toponimori. Toponimia nagusian horren lekuko lirateke jadanik araututa dauden *Oromiño* (Zornotzako auzoa, dokumentazioan *Orobio* agertu ohi dena), *Miñota* (Elorrioko auzoa, dokumentazioko *Miota* eraren eratorria), edo *Abadiño* bera ere (*Abadiano* dokumentatua eta gaztelaniaz gorde dena jatorria delarik)... Eredu horri jarraiturik arautu ditugu *-ñ-* dutenak: *Irabiñe* (Gorlizko baserria *Irabien* dokumentatua eta ahoz *Iramiñe* jaso), *Egiriñao* (Zeanuriko aurkintza, dokumentazioan *Eguiriano* agertzen dena)... Erabaki hauek 3.7.1. araua aipatuta hartu ditugu, baina esan bezala, agian aparte ere aipa litezke, nahiko gertakari bereiztua delako eta haren barruko kasuistika (sudurreztapen horien jatorria batik bat) oraindik aztergai dagoelako.

VI.1.1.5. Hiatoak

Arauetan hiatoak birjasotzeko edo beren horretan uzteko, elkarketa edo deribazioaren ondorio ote diren begiratu behar dela esaten da. Hala, elkarketa-deribazioaren ondorio direnak jaso diren moduan uzteko iradokitzen da, gainerakoak berreskuratu behar omen direlarik. Kasuak aztertu ahala, eta ugari samarrak dira, konturatu gara hiato guztien trataera ez dela berbera izan behar.

Elkarketa edo deribazioaren ondorio ez diren hiatoak, lexema barrukoak alegia, beti birjaso behar direla pentsatzen dugu, 2.5.2. arauarekin bat gatozela. *Aiazatza* (Orozkoko auzoa, ahoz *Aizetza* ibiltzen dena), *Otxaortiagako iturria* (Mañarian, ahoz *Otxortiagako iturriye* jaso dena), *Labierua* (Gautegiz Arteagako baserria, ahoz *Labiru* ohi dabilena)... Ez gara ausartu beste horrenbeste egiten *Undurraga* toponimoarekin (Zeanuriko auzoa eta zentral hidroelektrikoa, dokumentazioan *Uandurraga* agertzen dena), toponimia nagusia delako eta jadanik inausiriko modu horretan araututa eta normalduta dagoelako.

Lexema arrunten arteko elkarketaren ondorio direnetan, oro har, berreskuratu behar direla uste dugu, modu berean 2.5.2. arauan oinarrituz: *Etxeandia* (Mañariko baserria, ahoz *Etxandi* jaso), *Kobailun* (Mañariko harpea, ahoz *Kobilun* dabilena), *Ormaetxe* (Meñakako baserria, ahoz *Ormetxe* jaso dena)...

Posposizio egituren ondorio diren kasuetan tradizioa begirata irteera biak onar daitezkeela ematen du. 2.5.2. aruari jarraituz, hiatoa berreskura daiteke: *Laurtuondo* (Zeanuriko tontorra, ahoz *Laurtondo* jaso), *Dardakaosteko erreka* (Zeanuriko erreka, ahoz *Dardakosteko erreka*)... Edo kontrara, 2.5.1. aipaturik, ahozko joerari men eginik, hiatoa desagertuta utzi: *Oloste* (Zamudioko baserria, dokumentazio ugarian *Olaoste* agertu ohi dena), *Txabolondo* (Ispasterko basoa, *txabola-ondo* elkartetik datorrena)...

Ohikoak diren elkarketetan hiatoak gal daitezke, adibidez deklinabide arruntean erabili ohi diren lege morfofonetikoak betez: $a+e=e$, $a+o=o$, $a+u=u$, bereziki *-eta* atzizki lokatiboa (deklinabidean ere erabilia) agertzen denetan. Bide hau hartu dugunetan 2.5.1. araua aipatu dugu: *Iñarretzundu* (Orozkoko basoa *Iñarra-etzundu* elkarketa argitik datorrena), *Oleta* (Amorotoko baserria, dokumentazio ugarian *Olaeta* eran aurkitzen dena), *Erroteta* (Amorebieta-Etxanoko baserria, dokumentazioan *Rotaeta*)... Baina elkarketa-puntu horretan gertatzen den galera ez baldin bada ohikoa, berreskuratzea jo dugu 2.5.2. arauan oinarrituz: *Sintxieta* (Orozkoko erreka-zuloa, ahoz *Sintzita*), *Azekieta* (Orozkoko pagadia, ahoz *Asikita*), *Errekatxueta* (Orozkoko hegala, ahoz *Errekatxuta*)...

Badirudi aparteko trataera merezi duela oikonimoetako *-ena* atzizki tradiziozkoak. Oro har atzizkia bere osotasunean jasotzea jo behar dela uste dugu, bokalismoak mota desberdinekoak izan daitezkeelarik: $-a+ena = -ena$, 2.5.1. araua aplikatuta hiatoa galtzen duena, bereziki *-a* hori berezkoa ez delarik: *Zabalaena* > *Zabalena* (Bermeoko baserria, *Zabala-ena* elkarketatik datorrena), *Ganena* (Laukizko baserria, ahoz *Ganene* jaso)... Hala ere frogatzen daiteke *-ena* atzizkia baino lehenagoko bokalak ahozko erabileran indartsu gordetzen direla askotan (bereziki *-a* organikodun lexemak direnetan) eta salbuespen batzuk egin dira aplikazioan: *Anaena* (Ereñoko baserria, ahoz *Anane* dabilena), *Galartzaena* (Bermeoko baserria, ahoz *Galartzane*), *Gerekaena* (Bakioko baserria, ahoz *Gerekane* jaso dena)...

Errazenak, *-e* bokalaz amaituriko lexemei gaineratutako *-ena* atzizkiak dira, bokal biak bat egin ohi direlarik, $e+ena = ena$, eta 2.5.1. arau berbera aipatzen dugularik: *Alkatena* (Berangoko baserria, *Alkate-ena* elkartetik heldu eta *Alkatene* jaso dena),

Sorretxena (Mungiako baserria, *Sorretxe-ena* elkarketatik, ahoz *Sorretxene* bildua), *Salomena* (*Salome-ena* elkarketatik eta *Salomene* jasoa)...

Gainerako bokalak suertatzen badira aurretik, hiatoak berreskuratzen jo dugu 2.5.2. arauko filosofian oinarrituta. Lehenik, *-i+ena = -iena*: *Dendariena* (Lezamako baserria, ahoz *Dendarine* jaso dena), *Mariena* (Mungiako baserria, ahoz *Mariñe* jaso dena), *Zipiriena* (Galdakaoko baserria *Zipiriene* eta *Zipiriena* jasoa)...; *-o+ena = -oena*: *Obispoena* (Abadiñoko baserria, ahoz *Obispuena* jaso dena), *Domingoena* (Larrabetzuko baserria, ahoz *Domingona* bildu dena), *Olanoena* (Lezamako baserria, ahoz *Olanone* jasoa)...; *-u+ena = -uena*: *Abaituena* (Munitibarko baserria, ahoz *Abaittune* jaso), *Kiñuena* (Busturiko baserria, ahoz *Kiñuene*), *Peruena* (Markin-Etxebarriko baserria, ahoz *Peruni* bildu dena)... Hiato hauek berreskuratu dituguneko kasuetan 5.2.4. araua aipatu dugu, ordea arauaren erredakzioan gerta daitezkeen galerak zehazki eta exhaustiboki deskribatu edo guztiz orokorra egin behar litzateke, kasuistika guztia sar dadin.

VI.1.1.6. Bokal paragogea: -e

Euskal Herriko iparrekialdeko herri izenetan amaierako -e hori arautzea erabaki bazen ere, ez dugu mendebaldean antzekorik egin behar denik uste. Bizkai aldean ez da oraintsu arte amaierako -e horien arautzearen aldeko proposamenik egin, baina zenbait giro populista/etnografiazalaren aldetik ari da haren defentsa egiten. Amaierako -e horiek ez onartzeko arau berri bat gaineratu genuen, 2.8.2. alegia, zehazki formulatu duguna, fenomeno ondo aztertu ostean.

Iñaki Gaminde irakasleak jakinarazi zigunez, paradigma desberdinak dabilta izen arruntekin eta propioekin, nahiz itxura antzekoa izan. Adibide batzuk ikus ditzagun:

	Bokala arrunta	Bokala + a propioa	Kontsonantea arrunta	Kontsonantea + a propioa
Absolutua	Goiko etxea	Goikoetxea	Taberna zaharra	Tabernazarra
Inesiboa	Goiko etxean	Goikoetxean	Taberna zaharrean	Tabernazarran
Genitiboa	Goiko etxeko	Goikoetxeko	Taberna zaharreko	Tabernazarreko
Ablatiboa	Goiko etxetik	Goikoetxetik	Taberna zaharretik	Tabernazarretik
Adlatiboa	Goiko etxera	Goikoetxera	Taberna zaharrera	Tabernazarrera

Paragoea jasotzen duen hitzak, jatorriz, *-a* amaiera (artikulua eta bekanki organikoa) eduki dezake nahiz ez. Hitzak *-a* amaiera edukiz gero, berau *-e* bihurtzen da eta \emptyset izanez gero, *-e* gaineratzen zaio. Kausa nagusia deklinabidean bilatu behar dugu, nahiz eta batzuetan aurreko hots bokalikoak (*-i-* edo *-u-* denean, edota *-e-* denean harmonia eraginez) *a > e* itxituren ere lagun dezakeen. Hala, toponimoen erabileran tipologia hauek azter daitezke:

	Bokala	Kontsonantea	Bokala + a	Kontsonantea + a
Absolutua	Betondegi	Zubizabal	Olabarria	Goikogana
Inesiboa	Betondegin	Zubizabalen	Olabarrian	Goikoganan
Genitiboa	Betondegiko	Zubizabaleko (-go)	Olabarriko	Goikoganeko
Ablatiboa	Betondegitik	Zubizabaletik (-dik)	Olabarritik	Goikoganetik
Adlatiboa	Betondegira	Zubizabalera	Olabarrira	Goikoganera

Bistan da deklinabidea erabiltzean, kontsonantez amaitutako leku izenekin *-e* epentetikoa erabiltzen dela genitiboan, ablatiboan eta adlatiboetan. Honen ondorioz, absolutuan ere *-e* horrekin erabiltzen hasi dira *Zubizabal > Zubizabale* eta *Goikogana > Goikogane* aldaketak eraginez. Gero, inesiboan ere, sistema berri honekin bat datozen forma analogikoak erabiltzen hasi dira: *Zubizabalen* eta *Goikoganen*.

Gaur eguneko mendebaldeko ahozko erabilera eta proposatzen dugun paradigmen arteko aldea kontsonantez amaitutako leku izenetan absolutuan eta inesiboan aurkituko litzateke bakarrik:

	Ahoz	Idatziz	Ahoz	Idatziz
Absolutua	Zubizabale	Zubizabal	Goikogane	Goikogana
Inesiboa	Zubizabalen	Zubizabalen	Goikoganen	Goikoganan
Genitiboa	Zubizabaleko	Zubizabaleko	Goikoganeko	Goikoganeko
Ablatiboa	Zubizabaletik	Zubizabaletik	Goikoganetik	Goikoganetik
Adlatiboa	Zubizabalera	Zubizabalera	Goikoganera	Goikoganera

Gainerako kasuetan, ezta bokalez amaituriko izenetan ere, ez legoke konfliktorik.

Hain zuzen ere, hauxe berau izango litzateke guk proposatzen dugun erabilera arautua. Bistan denez, *-e* paragogikoak, Bizkai aldean gutxienez, ez dugu inola ere onartzen, beti jatorrizko era ematen saiatu garelarik. Neurri hau ez da leku guztietan berdin ondo etorria izango. Zenbait kasutan jadanik aspalditik ibili baitira *-e*-dun formak, baita jatorri ofizialeko iturrietan ere: *-gane* amaierako mendiak edo mendateak: *Autzagana* (Amorebieta-Etxano eta Muxikako mendatea, ahoz beti *Autzagane* edo *Eutzagane*), *Gorondagana* (Sondikako tontorra, ahoz *Gorondagane* bildu dena), auzo-izen ezagunetan: *Ibarra* (Erandioko auzoa, ahoz beti *Iberre* bildua)... Honelako kasuetan atzera egitea bide latza izango dela dudarik ez dago, ordea honen aldeko gure apustua argia da. Paragogedun eren ondorioak hasi dira jadanik ikusten Bizkaian zehar. Kanpaina honetako ahozko bilketetan *-e* paragogikoa duten izen batzuk, hain normal bihurtu dira, non *-e* horren ostean mugatzaile berria gaineratzen baitute inolako konplexurik gabe, gehienetan amaierako fonetismoa eta guzti: *Ibarra* (Amorotoko

baserria, ahoz *Ibarrie* jaso), *Goikirigana* (Ugaoko mendi-adarra, ahoz *Goikiriganea*), *Truendegana* (Bermeoko tontorra, ahoz besteaz beste *Truendeganie* bildu dena)...

Bizkaian zehar hainbat aldiz kausi dezakegun *Ibarra* izenarekin, eta oso adibide argigarria izan daiteke, uste dugu ezin dela irizpide desberdina aplikatu leku batetik bestera eta modu berean jokatu dugu. Eboluzioa bi norabideko bektoreek bultzatu dute. Alde batetik -e paragogikoa eta honen ondoriozko harmonia bokalikoa atzetik aurrera izan liteke bidea: *Ibarra* > *Ibarre* > *Iberre*. Baina *Iberra* erak ere jaso dira eta hauetan -i-gatiko itxitura bokaliko bat eta gero harmonia nahiz paragogea, hau da: *Ibarra* > *Iberra* > *Iberre*, adibidez *Ibarra* (besteak beste, Gernika-Lumo eta Ajangizko *ibarra*, ahoz beti *Iberra* jaso dena). Nolanahi ere, halako kasu guztiak *Iberre* erara heltzen dira lehenago edo beranduago eta guk *Ibarra* forman arautu ditugu.

VI.1.1.7. Metatesiak

2.7.1.-2.7.2e. arauetan bokal metatesiak aipatzen dira eta 4.1.1.-4.1.2. arauetan metatesi hutsak. Gure ustetan ez da hain fenomeno ugaria eta gainera kasu guztietan tradizioaren aintzinasuna da irizpide erabakiorra. Ondorioz, pentsatzen dugu ez duela garrantzirik bokalena ala kontsonanteena den aipatzeak. Gainera kasu gehienetan bokalak eta kontsonanteak daude fenomenoan parte hartzen. Bokalismoen artean aipatu beharrean, silabismo hustzat jaso eta era orokorragoan birformulatuko genuke modu bakar batean. Gainera gure ustez ez da euskararako bereizketarik behar (2.7.2e.), erromantzez ere irizpide berbera erabili delako: *Malgarratzagabaso* (Gatikan, ahoz *Margaltza baso* jaso dena), *Pagoleorragea* (Munitibarko baserria, ahoz *Parriola* bildua), *La Paredina* (Lanestosako meatzea, ahoz *La Paderina* jaso dena)... Bokaleena izan den kasuetan guk 2.7.1.-2.7.2e. jokoa aipatu dugu (bata zein bestea, normalean 2.7.2e.) eta gainerakoetan 4.1.1.-4.1.2. (normalean 4.1.2.). Baina guztiak laburbilduko genituzke azken bi hauetara eta lehenengo jokoa kenduko.

VI.1.2. KONTSONANTISMOAK

VI.1.2.1. Hotsen errepikapena eta elipsia

Ahozko bilketak eta era dokumentatuak erkaturik, oso argiro ikus daiteke silaben errepikapena dagoenean, ohikoan elkarketa baten ondorio, silaba bi horietako bat desagertarazten dela. Badirudi kakofoniaren aurkako errekurtsioa dela hau, aski natural eta automatikoa, baina askotan jatorrizko izenen izkutatzailer bilakatzen dena. Honegatik, gure ustez jatorrizko formak berreskuratu behar dira eta hala egin dugu, 24.2.1. araua aipaturik: *Pagatzazabal* (Zeberio basoa, ahoz *Pagatzabal* eta dokumentazioan *Pagachasabal* jaso), *Arteagagana* (Errigoitiko tontorra, ahoz *Atiagane* eta dokumentazioan *Arteagagana* era osoa jaso dena), *Mumusdei* (Zamudioko baserria, ahoz *Musdi* eta dokumentazioan *Munusdey* eta *Mumusdey* jaso)...

Beste kasu batzuetan balizko etimoak aditzera ematen du halako silaba bat galdu egin dela, baina hipotesi horri eusten dion dokumentaziorik jaso ezean, ez gara ausartu eta bere horretan utzi dugu: *Erregorta* (Arrankudiagako basoa, agian **Erregegorta* eratik letorkeena), *Susterre* (Arrankudiagako malkarra, agian **Susterrerre* duena oinarrian), *Aginagana* (Igorreko tontorra, beharbada **Aginagagana* izan behar litzatekeena)...

Nahiz eta era arautuetan silaba horiek jasotzeko 24.2.1. araua aipatu dugun, gure ustetan fenomeno hau ez da silaba-galera arrunt bat eta modu zehatzean tipifikatu behar litzateke, fenomenoak deskribatzen laguntzeko dituen azalpenak emanda.

VI.1.2.2. Dardarkari anitzen metaketa

Sarritan aurreko fenomenoaren lagun, elkarketa baten ondorioz dardarkarien errepikapena suertatzen deneko kasua aipa daiteke. Ahoskatzen zail samarrak izaten dira halako multzoak eta normalean bilatzen den soluzioa silabetako baten elipsia izaten da, adibidez: *Lapurerreketeta* (Dimako auzoa, ahoz *Lapurketa* jaso dena). Honelako kasuetan lehen aipatutako irizpide kontserbatzaileari jarraitu diogu gehienetan, baina kasu partikular hauetan aukeratu dugu bi dardarkari aniztetako lehenengoa bakun bihurtzea, hizkera erlaxatu arruntean (silaba ezabatzen ez denean, jakina) halaxe egin ohi delako: *Bolibarurrutia* (Zamudioko baserria), *Saratsibarerrekea* (Markin-Etxebarrian), *Bollaraurrekoa* (Ereñoko baserria)...

VI.1.2.3. Eroritako -n- bokalartekoaren birragerketa

Konposaketa edo eratorpena burutzen denean, Euskal Herri osoan ikus daitekeen arau orokorraren ondorioz galdutako -n- bokalartekoak birragertzen dira maiz. Ondo tipifikatutako fenomeno da eta hiztegi arruntean gertatu ohi den legez, pentsatzen dugu eratorrietako -n- horiek araututzat eman litezkeela. Hala **ardano* zaharretik *ardao* > *ardo* datozen arren, *ardantza*, *ardantze*, *ardandegia*... heldu zaizkigu ere; **gaztana* eratik *gazta(a)* > *gaztanbera*, *gaztandegi*...; **katena* zaharretik *katea* > *katenbegi*... Halako eratorriak onartuak daude eta toponimian -n- horiei eutsi behar zaiela pentsatzen dugu, erabileratik galduta ez badaude behintzat: *Areantza* (Gorlizko auzoa, ahoz *Arentza* jaso dena eta *arena* > *area* hitzaren eratorria), *Areantza* (Elorrioko baserria, ahoz *Arientza* jaso), *Kanpanzar* (Portugaleteko auzoa, *kanpana* > *kanpaa* > *kanpa* berban ei duena jatorri)... Fenomeno hau ez dugu arau-kode bereiz batez identifikatu, baina agian kodetzea haren ikerketarako laguntza izango litzateke.

Badirudi, hala ere, mintzairatik dagoeneko desagertua dela -n- horietarik bat edo beste eta ez gara berreskuratzen ausartu: *Kanpazar* (Elorrioko mendatea, ahoz *Kanpasar* eta dokumentazioan *Campanzar* jaso dena).

VI.1.2.4. Bokalarteko leherkari ozenen galera

Hala erromantzezko izenetan nola euskarazkoetan, kontsonante hauen galera bulgarismotzat jo eta jatorrizko era berreraiki da: *Ubilla* (Ereño eta Ispasterko basoa, ahoz *Ulla* jaso dena), *Collado* (Artzentalesko auzoa, ahoz *Collao* jaso), *Urkiaga* (Igorreko baserria, ahoz *Urkia* jaso)... Hizkuntza bietan 3.1.2. araua aipatu dugun arren, kontsidera liteke erromantzerako arau zehatz apartekoa ematea (3.1.2r.).

Erromantzez, hala ere, maiz konposaketan agertzen diren *vado* > *vao* > *vau* > *vu* bezalako kasuetan, ahoz bildutako erak beren hartan utzi dira, eskualdeko hizkeraren ezaugarritzat har daitezkeela pentsatzen dugulako: *Vulaslamas* (Karrantzako basoa, ahoz hala jaso baina *Baulalama* ere dokumentatua), *Saldelvao* (Karrantzako hegala), *Vautejo* (Karrantzako basoa)... Kasu honetan 3.1.1. aipatu dugu, baina zehatzago 3.1.1r. gainera liteke.

VI.1.2.5. Bokal arteko -t- epentetikoa

Zenbait kasutan elkarketaren ondorio -t- kontsonantearen epentesia gertatzen da. Ez da hiztunek gauzatzen duten errekurso automatikoa, baina onartu behar da euskararen eratorpena eta konposaketaren arau orokorrekin bat datorren fenomeno da. Honegatik uste dugu araututzat eman daitezkeela epentesidun erak eta hala egin dugu, justifikatzeko 3.7.1. araua aipatu dugularik: *Astondo* (Gorlizko punta, *atx-ondo* elkarketatik datorrena), *Goitondo* (Mallabiko baserria, *goi-ondo* elkarketatik datorkeena), *Munabetalde* (Berriatuko basoa, *Munabe-alde* elkarketaren ondorio)... Hala ere, fenomeno berezia dela dirudi eta agian aparte sailkatu behar litzateke.

VI.1.2.6. Txistukariaren erorketa

Leherkari gorraren aurrean maiz samar gertatu ohi da txistukariaren erorketa, baina beste zenbait kontsonante aurretik ere bai, afrikatuak kasu. Fenomeno hau ez dago tipifikaturik eta guk ere ez dugu arau zehatzik gaineratu, normalean 3.11.2. irizpide orokorra aipatuta, galdutako hotsa berreskuratu dugularik: *Azkarate* (Arteagako baserria, ahoz *Akarate* jaso), *Ispaster* (izen bereko udalerrria, ahoz *Ipistar* eta *Ipaster* jaso), *Isuskitze* (Plentziako auzoa ahoz beti *Isukitze* jaso dena eta Lezamako baserria *Isikotze* jaso)...

VI.1.2.7. Horzkari aurreko sudurkaria gehitzea

Ahozko inkestetan ikusi ahal izan dugunez, afrikatu edota horzkari aurrean oso ohikoa da Bizkaian kontsonante sudurkaria ahoskatzea. Hala *Armitza* arautu dugu dokumentazioarekin bat etorritz (Berriatuko tontorra, ahoz *Armintza mendixe* jaso dena), *Belakometaburu* (Mallabiko hegala, ahoz *Belakomentaburu* jaso), *San Roman ermita* (Muxikan, ahoz besteak beste *San Roman ermintxie* jaso, generiko hori era horretan oso sarri kausi daitekeelarik)...

Bistan denez, pentsatzen dugu fenomeno honen ondorio diren sudurkariak ez direla arautu behar, zeren berdin egiten baita hizkera arruntean eta toponimian, *ermita* generikoaren kasuan ikusi den legez. Kasu hauek ez ditugu arau baten bitartez identifikatu, baina ez legoke gaizki kasuistika exhaustiboki begiratuta, testuingurua ongi deskribatu eta gertakaria zehatz tipifikatzea, haren aurrean hartu beharreko bidea adieraziz, hau da, arau bereiz bat sortzea, errekkurrentziarik nahikoa dela ikusten bada.

VI.1.2.8. Txistukariak

Gauza jakina da txistukarien bereizkuntza ez dela mendebaldeko euskaran ondoegi egiten. Honenbestez, hots horiei dagokien grafia arautua erabaki aurretik tradizioari begiratu behar diogu arreta handiz. Hala egin dugu *s-z* eta *tz-tx-ts* nahaste orokorrekin, era dokumentatu edo etimologikoari lehentasuna emanaz eta horretarako pentsatuta zegoen 3.3.2. araua aipatuz.

Oso ohikoa da kontsonante aurreko txistukariak apikoalbeolarera jotzea, bereziki kontsonante hura leherkari gorra delarik. Hala Euskaltzaindiak jadanik inoiz araututa zeuzkan *Astxiki* (Abadiñoko haitz-punta), *Askondo* (Mañariko baserria), *Elespe* (Dimako baserria)... Guk ere halakoak ontzat eman ditugu, noski, kasu hauetan txistukari etimologikoaren aldaketa zaharra izanik, zilegi dela uste dugulako, 3.3.1. araua aipatzen dugula. Hala ere, arau honetan fenomeno desberdin asko izkututzen direla dirudi eta bereizteko edo tipifikatzeko ahalegina egin liteke arauketan. Aipatzen ari garen kasu honetan, bestalde, badirudi *-s-* batzuek oso onomastika-tradizio zaharra dutela mendebaldean, toponimian zein deituretan. Aski normalduta daude adibidez *Amesti*, *Basterretxea*, *Zugasti* eta antzeko grafia. Dena dela, zenbait kasutan, etimo argiak bultzaturik, badirudi zuzenena jatorrizko txistukari arautu estandarra jasotzea dela, gainerako euskalkietako tradiziotik lar ez urruntzeagatik. Hala egin dugu *Gaztaina-*, *Ametz-*, *Eguzki-* eta halakoetan: *Gaztañabarrena* (Gernika-Lumo eta Mendatako erreka-zuloa, ahoz *Gastañabarrena* jaso dena), *Amezmakurra* (Lemoako pinudia, ahoz *Ametmakurre* (?) bildu dena), *Eguzkitza* (Gatikako baserria, ahoz *Eguskiza* jaso)... Kasu hauetan ere 3.3.2 araua aipatu dugu, txistukarien nahaste arruntaren ondorio hutsa direnik ez dirudien arren. Dokumentazioak erakutsitako tradizioan oinarrituta, zenbait salbuespen utzi dira alabaina: *Zugastieta* (Muxikako auzoa, inoiz *Zubi-bustieta* etimoa aipatu delako), *Basterrekoa* (Munitibarko baserria, mendebalde honetan *baster-* osagarriaren tradizio onomastikoak *-s-* baizik ez duelako), *Larrabasterra* (Sopelako auzoa)...

VI.1.2.9. Kontsonanteen ozentzea

Behin baino gehiagotan aurkitu dugun fenomenoa izan da, deklinabidean genitibo marka gaineratzean, beronen *-k-* hotsaren ozenketarena (*-ko > -go*). Pentsatzekoa da orobat gertatuko dela ablatiboaren *-tik* desinentziaren hasierako hotsarekin (*-tik > -dik*). Gauza jakina eta hedatua da desinentzia horien lehenengo hotsa ozentzen dela aurreko izenak *-n* edo *-l* amaiera duenean. Eta hala egin ohi da hizkuntza arruntean ere: *Xemeingo, Xemeindik, Elgezabalgo, Elgezabaldik...*

Bada, mendebaldeko toponimian behin baino gehiagotan aurkitu dugu, aurreko hitzak amaieran txistukaria edo dardarkaria duelarik, deklinabideko hasierako gorra ozendu egiten dela: *Lekaizgo korralak* (Zeanuriko aurkintza, *Lekaitz* izeneko iturriaren ondoan), *Larruzgo iturria* (Mañarian), *Atxulaurgo iturria* (Orozkon)... Seguraski fenomeno berberaren ondorio izango da *Amezdui* (Larrabetzuko basoa), *Arizdia* (Arantzazuko baserria), *Gurbizduia* (Arrankudiagako basoa)... kasu guztietan landare multzoa adierazten duen *-d(u)i* atzikia dugularik. Kontrara, era estandarragoa arautu dugu *Burbustubeaskoa* izenean (Zaratamoko baserria), zeinetan bildu den ahozko era *Bisgoa* izan baita. Gertakari bitxia da, jadanik testu zaharretan kausi daitekeena (adib. *Salinasgo kondea* in Michelena, Luis. *Textos Arcaicos Vascos*) eta uste dugu berrikeria ez den aldetik, mereziko lukeela aparteko tipifikazioa eta araua. Azken honen gabezia, guk ez dugu arautze-kode bereiz batez markatu.

VI.1.2.10. Kontsonante aldaketak

Kontsonante aldaketak onartu edo gaitzesteko 3.2.1. eta 3.2.2. arauak ditugu irizpideen artean eta haietaz baliatuz jokatu dugu kasu guztietan. Normalean aldaketa hauen aurrean jatorrizko erara bihurtzeko deliberoa hartu dugu. Hala ere, kasu batzuetan, batez ere toponimia nagusian, kontsonante-aldaketa jadanik normalduak direla kontsideratu eta hala utzi ditugu: *Lumo* (Gernika-Lumoko auzoa, jatorriz *Luno*), *Maguma* (Muxikako auzoa, jatorriz *Maguna*), *Oromiño* (Amorebieta-Etxanoko auzoa, jatorriz *Orobio*)...

Fenomeno berezia aurkitu dugu, eskualde hurbiletan eta toponimia nagusian adibide biak, zeinetan kontsonante aldaketa batzuen ondorioz, auzo horien izen tradizionala eta gaurko era herrikoia elkarretatik asko urrundu baitira. Kasu bietan deituren onomastika-tradizioak ere bultzatu gaitu jatorrizko erak arautzera, beti ere 3.2.2. arau kontserbatzaile orokorra aipaturik: *Gandariats* (Lemoako auzoa, ahoz *Landaiz* edo *Landitze* jaso dena), *Gandatsegi* (Zeanuriko auzoa, ahoz *Landatzi* jaso eta zenbait mapa modernotan errotulatu).

Gaztelaniaz, kontsonante aldaketen aurrean joera kontserbatzaileagoaz jokatu dugu eta berreskuratzeko 3.2.2. araua aipatu den arren, kontsidera liteke 3.2.2r. aparteko baten erredakzioa. Hau da: toponimo erromantzeetan honelako kontsonante-aldaketen aurrean, era dokumentatua edota etimologikoa jaso dugu grafia arautuan: *Saldejoyo* (Karrantzako mendi-hobia, ahoz *Sandejoyo* jaso eta *sal* edo *sel* 'kortabaso' izenaren eratorria), *Refrádigas* (Abantoko kala, ahoz *Refráligas* eta *Refláligas* jaso), *Banacin* (Sopuertako hegala, inkestetan *Barracin* ere jaso)...

VI.1.2.11. H etimologikoa leku-izen erromantzeetan

Leku-izen erromantzeetan hasierako nahiz tarteko *h* etimologikoa berreskuratu dugu, gaztelania estandarraren joera orokorrari jarraikiz, eta 3.9.2r. araua aipatzen delarik: *La Horcadura* (Karrantzako erreka-zuloa), *Laguna del Hayal* (Karrantzako tontorra), *Torcahonda* (Karrantzako mendi-hobia)...

Hala ere, latinezko *f*- hotsaren hasperenketa, gaur egun *j*- bezala adierazita, errespetatzen da grafian, Enkarterri mendebaldeko hizkeraren ezaugarritzat hartzen baita, horretarako 3.9.3r. arau berria aipatzen delarik: *Jornillo* (Karrantza eta Villaverde Turtziozko tontorra, latinezko *Furnus* hitzetik heldu dena), *Joyojondo* (Turtziozko zuloa, *Hoyo* eta *Hondo* hitz erromantzeak biltzen dituen), *La Jayuela* (Karrantzako belardia, latinezko *Fagus*-etik datorrena)...

VI.1.2.12. Kontsonante hoskide erromantzeak

Oro har, leku-izen erromantzeetako kontsonante hoskideen kasuetan (*b-v*, *g-j*, *h-Ø*) idazkera etimologikoa errespetatu da, betiere baldin horretarako daturik nahikoak aurkitzen badira. Dena dela, idatzizko tradizioa sustraiturik baldin badago, etimologiaren kontrakoa izanda ere, tradizio hori errespetatu egin dugu eta 9.1.5. arau berria aipatu dugu: *Orcón* (Barakaldoko tontorra, seguraski latinezko *Furca* hitzetik datorren arren *Horcón* arautu ez duguna), *Ahedo* (Karrantzako auzoa, seguraski latinezko *Fagus* hitzetik gaztelaniaz *haya* eta euskaraz *pagoa* eman dituen, beraz *Ha(y)edo* arautua iradokiko lukeena), *La Orta* (Urduñako hegala, dirudienez latinezko *Hortus* hitzetik gaztelaniaz *huerto* eta euskaraz *ortu* eman dituen, erromantzez *La Horta* eskatuko lukeena)...

VI.1.3. MORFOSINTAXIA

VI.1.3.1. Konposaketak

Euskal toponimoei dagokienez, hiru arau erabili ditugu nagusiki toponimo konposatuak adierazteko eta sailkatzeko. 6.1.1. araua aipatu dugu izen bi egiazko konposaketa batez lotuta agertzen zaizkigun kasuetan, normalean bigarren osagarria generiko bat izanik ere: *Agirreiturri* (Erandion), *Kaikuerreka* (Durangon), *Ullantzugana* (Zaldibarko tontorra)...; edo izen + adjektibo egiturakoetan: *Urgorri* (Urduñako iturria), *Solozarra* (Amorebieta-Etxanoko basoa), *Tokieder* (Ondarroako basoa)... 6.4.1. aruari dagozkion etxe izen konposatuak, bakarrik oikonimian tipikoa den konposaketako kasuak sailkatu ditugu, hala nola *Libaroasantiagoena* (Gatikako baserria), *Bastegietaetxebarria* (Ibarrangeluko baserria), *Olabezubiaga* (Berrizko baserria)... Azkenik, 5.1.3. araua erabili dugu *-ko* genitiboaren marka agertzen den oikonimoetan alde batetik: *Agirrekoerrota* (Mungiako baserria), *Basterrekoetxea* (Lemoizko baserria), *Ugaldekoerrota* (Mungiako baserria)... eta bestetik toponimo ihartuetan, hau da, toponimoan *-ko* markaren ondoan agertzen den generikoa ez dagokionean errelitate geografikoari: *Urrestikolanda* (Derioko tontorra), *Markarrikozuloa* (Eako kala), *Ellaurikolarrea* (Zeanuriko tontorra)...

Horrez gain, genitiboa egon arren, lotuta idatzi ditugu generiko batzuk, aurreko lexema espezifiko ez baina kokatzaile hutsa den kasuetan, hau da: *behe*, *erdi*, *goi*...+ *ko* + generiko egitura duten izenetan: *Bekoerreka* (Igorren), *Bekoiturria* (Iurretan), *Goikobaso* (Zeberion)... Berau justifikatzeko 5.1.3. irizpidea aipatu dugu, hainbeste kasu ez baitira izan. Badirudi kasu hauek justifikatzeko aipamena egin behar litzatekeela.

Erromantzeko konposaketaren kasuistika Euskaltzaindiak arauetan biltzen duena baino konplexuagoa zela ikusita, beharrezkoa suertatu zitzaigun zeuden arauak zehaztea eta osatzea batetik, eta bi arau berri proposatzea bestetik. 7.1.1r. araua bere horretan mantendu egin da eta aplikatu dugu izen + adjektibo multzoak osatutako konposaketetan: *Aguasfrías* (Alonsotegiko erreka), *Buenosaires* (Villaverde Turtziozko etxea), *Cuetorredondo* (Villaverde Turtziozko tontorra)... eta izen + izen egiturakoetan: *Regatolobo* (Barakaldoko iturburua), *Aldeacueva* (Karrantzako auzoa), *Campomar* (Muskizko tontorra)... 7.2.1r. arauaren hasierako erredakzioan bakarrik aipatzen zen artikularen beharra toponimoak bereiz idazteko, baina gure ustez, preposizioa agertzekotan eta ahozko inkestak toponimoa bereiz ahoskatzen dela baieztatzen baldin badu, horrela arautu behar da. Beraz arau hau ondoren zehazten diren kasuetan erabili dugu:

Bai artikulua bai preposizioa agertzen direnenan: *Alto de la Fuente* (Karrantzako tontorra), *Cueva del Mudo* (Karrantzako haitzuloa), *Fuente del Oro* (Gordexolako iturria)...

Bakarrik preposizioa agertzen bada: *Fuente de Hierro* (Trapagaraneko iturria), *Arbolar de Cano* (Zallako basoa), *Maza de Topo* (Karrantzako tontorra)...

Eta azkenik, preposiziodun gabeko artikuludun aldakia nagusitzen denean: *Calleja la Mesa* (Karrantzako erreka-zuloa), *Cerrillo los Corvos* (Karrantzako mendi-hobia), *Cueto la Cabra* (Villaverde Turtziozko mendi-adarra)...

Artikulu eta preposiziorik gabeko aldakia edukita ere, inkestak erakusten digunean toponimoa bereiz ahoskatzen dela, hala arautzea erabaki dugu, horretarako bidea ematen digun 7.3.1r. arau berria sortu dugularik: *Pico Miguel* (Artzentalesko tontorra), *Punta Lucero* (Zierbenan), *Concha Segunda* (Abanto-Zierbenako meatzea) edo

toponimo berri batzuen kasuan, *villa* eta *casa* hitzek osatutakoetan bereziki: *Villa Urquijo* (Urduñako etxea) eta *Casa Felipe* (Trapagarango etxea).

Bukatzeko, preposiziodun eta artikuludun toponimo asko fosilizatuta daudela, askotan konposaketaren elementuren bat desitxuratuta dagoela eta fonemaren bat konposaketa dela-eta galdu dela ikusita, komenigarria iruditu zitzaigun 7.4.1r. araua sortzea toponimo hauen idazkera arautzeko: *Vaulasmaderas* (Karrantzako basoa), *Ventalaperra* (Karrantzako haitzuloa), *Entrambosríos* (Artzentalesko auzoa).

VI.1.3.2. Perpaus egiturako toponimoak

Leku-izenak perpaus itxura duenean, haren osagarriak lotuta idazteko sistema hartu dugu, nahiz oso erabaki komentzionala dela jakin. Ez dira kasu asko eta ez dute aparteko deskribapena egiten dien araurik. Honegatik ez dago halako toponimo bitxiak sistematikoki identifikatzeko modurik. Dena dela, honakoak arautu ditugu: *Atxikezdaukanaldea* (Aulestiko hegala), *Matopedrolobo* (Karrantzako erreka), *Arririkezdagoenaldea* (Markina-Xemeingo basoa) eta *Uradariona* (Bakio eta Lemoizko erreka eta labarra).

VI.1.3.3. Artikulua

Aipatzekoa iruditzen zaigu toponimia erromantzean artikulua agertzeko joera. Beti erraza izan ez arren, saiatu egin gara artikulua kentzen toponimoaren parte ez denean, horretarako 0.1.4r. araua aipatuz: *Ameyadero Malo* (Karrantzako erreka-zuloa, ahoz *El Amelladero Malo* jaso), *Escobal* (Galdamesko erreka, inoiz *La Olla del Escobal* izenean artikuluz agertzen dena), *Estación* (Sopuertako auzoa, beti *La Estación* bildu dena). Toponimoa artikulua + izen egituraduna denean, oro har, bereiz arautu dugu, 11.5.1. araua aipatuta: *El Zorrillo* (Gordexolako basoa), *La Molina* (Balmasedako baserria), *El Alisal* (Gordexolako basoa)..., baina tradizioak elkarketa dagoela frogatzen badu, batera idatzi ditugu: *Lanestosa* (id.), *Latabla* (Karrantzako malkarra), *Lacalle* (Karrantzako mendi-hobia)...

Azkenik esan behar da, toponimo erromantzeen hasierako artikulua letra larriaz hasten bada ere, generikoa gaineratzen diogunean minuskulaz jarri dugula, hasierako posizio hura galdu duelako: *El Cándano* / *Bosque el Cándano* (Villaverde Turtziozen), *La Rastrilla* / *Fuente la Rastrilla* (Gueñesen), *Los Amarillos* / *Escarpe los Amarillos* (Karrantzan)...

VI.1.3.4. Generoa

Ahozko bilketak oraindik genero bariazioa erabiltzen dela frogatzen badu, mantendu dugu, Bizkaiko mendebaldeko erromantzearen ezaugarritzat hartuta: *El Cumbre* (Galdamesko tontorra), *La Canal* (Galdamesko erreka), *La Puente* (Turtziozko auzoa)...

VI.1.4. ASPEKTU LEXIKOAK

VI.1.4.1. Oikonimia

Etxe-izenen tradizio handia eta datuen ugaritasuna dela-eta, badirudi tratamendu zehatz eta berezkoa behar duela euskarazko oikonimiak. Erabilera ere bizi-bizia da, nahiz eta azken mendean desitxuratze fase nabarmen batean abiatu diren hainbat eta hainbat etxe-izen. Honelako izenen praktikotasunak eta erabili beharrak ekarri du maiz jabearen izenarekin nahastea: jabeak etxearen izena har dezake, edo alderantziz, etxeak jabearen izena edo deitura. Azken kasu honetan, ahal izan den neurrian, etxearen izena berreskuratzen jo dugu, sarritan iturri dokumentalen laguntzari esker (9.1.2. araua): *Mintegibekoa* (Arratzuko baserria, ahoz *Maridzene* bildu dena), *Olabarrigana* (Galdakaoko baserria, inoiz *Marianona* jaso dena), *Uriartenagusia* (Dimako baserria, ahoz *Olabarrina* jaso eta goitizen legez parentesi artean *Olabarriena* ere arautu dioguna)...

Beste kasu askotan, etxeak goitizena edo izendapen hipokoristikoren bat du eta berau da maizenik ibiltzen dena. Kasu hauetarik ugariak izen osoaren era laburtu bat erabiltzean datza, sarri askotan osagarri kokatzaile hutsa izaten delarik: *Bitañogoiengoa* (Izurtzako baserria, ahoz *Goienengo* hutsa jaso delarik), *Galletebeitia* (Ispasterko baserria, ahoz *Beitixue* jaso dena), *lurrebasoandikoa* (Igorreko baserria, ahoz *Andikoa* jaso)...

Beste kasu batzuetan, oikonimia nagusian adibidez, generikoa ibiltzen da bere hutsean, egiazko izena alboratzen delarik. Irizpide orokorra informazio osoa biltzen duen izen 'ofiziala' jasotzea izan da, nahiz askotan era konposatu luze samarrak birreraiki behar izan ditugun. Hala ere, ez gaitu honek ikaratu behar, euskaran oso naturalak eta tradiziozkoak baitira halako konposaketa luzeak oikonimian eta, ondorioz, deituretan: *Lexartaerota* (Izurtzan, ahoz besteak beste *Errota* hutsa ere jaso), *Sarrikolea* (Larrabetzuko baserria, besteak beste *Ola* hutsa ere jaso dena), *Arandiajauregia* (lurretako baserria, ahoz *Palazio* soila jaso dena), *Agirretorrea* (Ispasterko baserria, ahoz *Torrie* bildua)...

Birreraiketa hauek egitean, kokatzailea agertzen denean 23.1.1. araua aipatu dugu. Batzuetan konposaketa luzeak egin ditugu, erabileran eta tradizio dokumentalean oin harturik, arau horrez gainera, 6.4.1. edota 9.1.2. aipatzen ditugula: *Beranogoiti* (Mallabiko baserria), *Gangoitibekoa* (Berrizko baserria), *Elortzaostekoa* (Urdulizko baserria)...

Kasu batzuetan etxearen edo jabearen goitizena baliokotzat jo dugu, orijinaltasuna, sorkuntza, informazio-maila e.a.engatik eta izen ofizial 'serioaren' ostean paratu dugu parentesi artean ohar gisa: *Abiña (Txikerrena)* (Muruetakoko baserria), *Gumuziobarria (Frantsesena)* (Galdakaoko baserria), *Zelaialdea (Tabernazarra)* (Gautegiz Arteagako baserria)...

Hala ere, birreraiketa luzeen aurrean, gure jokabidean badaude zenbait salbuespen. Lehenengoa, bildutako ahozko erek, era dokumentalek eta gainerako informazioek, askotan ez digute argibiderik nahikoa eman zehazki zein etxe-izen zahar eman dakioken zenbait baserriri. Kasu hauetan, jakina, erabilerari jarraitu diogu eta ibiltzen den izen huts hori eman diogu.

Eztabaidatua izan den arren, badirudi etxe-izenek osagai bat baino gehiago dutenean, elkartuta idazteko soluzioa dela hobestekoa. Oso ohikoa da euskal onomastikan honelako egitura konposatuen erabilera eta euskarak berez duen errekurtsio jatorra dela pentsatzen dugu: *Uharte-Arakil* eta *Uharte-Garazi*, *Uribe-Etxebarria* eta *Markin-*

Etxebarri, Arrati-Arteaga eta Gaategiz-Arteaga... bereizketak oso ohikoak dira hala leku-izenetan nola deituretan.

Sarrien errepikatzen den egoera izaten da zenbait etxek osatzen duten multzoa edo auzoa. Kasu askotan etxe horietarik bat izan zen nagusiena iraganean eta auzo osoak jaso du haren izena. Gaur egun auzoko etxe guztiek izen bera daramate, elkarretatik bereizteko osagarri banaz hornitzen direlarik: *Unda auzoa, Undabeitia, Undagoitia* (Muxikako auzoa eta beronen baserriak); *Zamakola auzoa, Zamakolaetxebarria, Zamakolaetxenagusia* (Dimako auzoa eta beronen baserriak); *Sagasta auzoa, Sagastabeitia, Sagastaetxebarri, Sagastagarai, Sagastagoia, Sagastagoitia, Sagastasoloa* (Abadiñoko auzoa eta beronen baserriak)...

Honelako kasuetan erabileran arruntena izaten da bigarren osagai hutsa jasotzea. Erabiltzailea *Sagasta* izeneko auzoan dagoenean, ez du beharrik ikusten izen konposatu osoa emateko eta bigarren zatia bakarrik emango du: *Beitia, Etxebarri, Garai, Goia, Goiti, Soloa...* Eta bide hau zilegi da euskaraz. Guk geuk horixe egin dugu maiz, auzoaren izena ere errotulatura agertzen delarik, mapan baserriei bakarrik izenaren osagarri bereizle hori idatzi zaie ondoan. Baina jokabide honekin kontuz ibili beharra dago. Testuinguru horietan (auzoan bertan berbetan ari garelarik edo mapan auzo horretako etxe horiek ikusten ari garelarik) izen osoa ez ematea zilegi bada ere, hortik kanpo, adibidez udalerrri bateko etxe-izen zerrenda alfabetiko bat osatu nahi dugunean, ezinbestekoa da izena bere osotasunean ematea. Euskal konposaketa-sistema honen funtsa eta funtzioa horixe da-eta. Horregatik, nahiz eta mapan *Beitia, Barrenengoa, Etxebarri...* agertu, zerrenda batean *Arratiagoienbeitia* (Dimako baserria, Artaun auzoan), *Aspiuntzabarrenengoa* (Arrankudiagako baserria, Aspiuntza auzoan), *Aldiñaoetxebarri* (Zeberioiko baserria, Aldiñao auzoan)...

Aipatu ditugun bigarren osagarri horietarik asko, kokatzaile erreferentzialak baizik ez dira. Kokatzaile horiek baliagarriak dira erreferentzia egiten dioten eremu mugatu horren barruan baldin bagaude. Bestela ez. Eta orobat gertatzen da generikoekin. Oso maiz gertatzen da *torre, jauregi, errota, ola* eta honelakoekin, kokatuta dauden auzoan gaudenean, generiko hutsa aipatzea nahikoa izatea eraikuntza identifikatzeko. Baina hortik kanpo gaudelarik, aurreko osagarria gaineratu behar zaio, normalean auzoaren izena, bestela izen bereko beste batzuekin nahasteko arriskua baitago. Gainera, batez ere torre eta jauregien kasuan, generiko hutsaz izendatzea, egiazko izenaren elipsia egitea lakoa da. Honegatik, kasu hauetan ia sistematikoki jarri dugu izen konposatu osoa, elipsoidun era jaso arren. Maiz dokumentazioak lagundu digu horretan eta azkenengo emaitza, agian, erabiltzaile arruntarentzat arrotz gerta daiteke: *Zamudiotorre* (Zamudion, ahoz *Malpika* jaso dena, jabe zaharraren izenaz ezagunagoa baita), *Martzaajauregia* (Atxondoko baserria, ahoz *Palazixue* hutsa jaso dena), *Berriozabaljauregia* (Elorrioko baserria, halaber *Palazixue* bildu dena)...

Azkenik, oikonimia berria (txaletak e.a.) arautzean, tradiziozale izan nahi duten arau hauen funtsa erlatibizatu egin da eta zenbait proposamen, jabeek erabaki bezala eman dira eta ez irizpideen arabera: *Villa Sangroniz* (Erandioko txaleta), *Artetaren etxea* (Ugaoko baserria), *Bidegane* (Mungia txaleta)...

VI.1.4.2. Hagionimia

Hagionimiaz ari gabela zenbait kontzeptu argitzea ezinbestekoa gertatzen zaigu hartutako erabakien azalpena bideratzeko. Izan ere hiru izendapen mota bereiztu ditugu. 'Adbokazioa' alde batetik, santu edo Ama Birjinaren deizio baten izen osagarria dugu, toponimiarekin zuzenean loturik ez dagoena. Nahiz eta jatorrian irudiak izendatzeko erabili, tenpluak ere izendatzen dituzte eta hortaz mapen errotulazioan derrigorrezkoak jotzen ditugu. Hala ere, hizkuntza batuak hauek adierazteko eskaini behar lituzkeen baliabideen gabezia nabarmena da. Horrela bada, gaztelaniaz ohikoak zaizkigun zenbait deituren itzulpena nekagarria gertatzen da: *Nuestra Señora de los Remedios*, *Cristo Redentor*, *Santo Ángel de la Guarda*, *Santo Cristo de la Piedad*... Bigarrenik 'hagionimoa' bereiztu beharrean gaude, hauxe dugu santuaren izena, gehienetan adbokazioarekin lotuta egon ohi dena eta maiz adbokazioaren beraren era laburtua dena. Hagionimoa tenplu zein bestelako egoitza sakratuak izendatzeko erabiltzeaz landa, bestelako edozein errealitate geografikotarako ere erabil daiteke, horrela bada, auzo, mendi e.a. izendatzeko ere aurkitzen ditugu. Halakoei, ordea, 'hagiotoponimo' deritzegu. Sail honetan ditugu lexikalduen daudenak eta beraz, egiazko toponimoak direnak, hala nola *San Fakundio tontorra* (Gorliz), *San Pelaio auzoa* (Bakion), *Jaun Done Mikel mendi-hegala* (Ubiden eta Zeanurin), *San Antonio hondartza* (Sukarrietan), *San Andres baserria* (Sopelan)...

Arautzean tratamendu desberdina izan dute tenpluek eta gainerako lekuek. Hagiotoponimoak esaterako toponimo legez landu dira, jasotako formak era arautuan errotulatu direlarik. Santu-izenak bereiz idatzi dira, nahiz eta kontsidera litekeen gainerako toponimoen moduan, grafia elkartua ematea. *Santi-* hasiera duten toponimoez ordea, hitz bi esango dugu. Izan ere, hasierako kodeketan eta Euskaltzaindiaren irizpideei jarraituz, 12.3.1. arauaz baliatu ginen batuta arautzeko. Baina Euskaltzaindiaren azken erabakiak direla-eta, araua aldatu eta banatuta idatzi egin ditugu. Hala ere badira lexikalizazio mailagatik batuta utzi ditugunak ere eta, beraz: *Santillandi ermita* (Meñakan), *Santimamiñe haitzuloa* (Kortezubin) edota *Santindere ermita* (Mungian). Bestelakoetan ordea, banaturik: *Santi Mami ermita* (Erandon), *Santi Kurutz ermita* (Zeanurin)...

Tenpluen kasuistikara itzuliz, zenbait erabaki hartu da 12.6.1. eta 12.7.1. arauetatik aldentzen direnak. Betiere ahozko formari garrantzia emanaz honako erabakiak hartu ditugu: erabilera berezia eta lexikaldua dela ikusi denean, hagionimotzat hartu eta jarraian adbokazio osoa eman dugu hizkuntza bakoitzean parentesi artean: *Sallobente ermita* (*Done Laurendi Martiria*) (Mañarian), *Santomazarra ermita* (*Done Tomas Apostolua*) (Zeberion), *Elexatxiki ermita* (*Abesuko Kristo Santua eta Gurutze Santua*) (Markina-Xemeinen)... Hizkuntza ofizialetariko batean jasotako izena, arestian esan bezala, adbokazioaren era laburtua izan bada (sasi-hagionimoa), beronen era osoa eman da parentesirik gabe: *San Pedro eliza* (*Done Petri Apostolua*) / *Iglesia de San Pedro Apóstol* (Markina-Xemeinen), *San Juan ermita* (*Done Joane Bateatzailea*) / *Ermita de San Juan Bautista* (Amorebieta-Etxanon), *Santindere ermita* (*San Andres Apostolua*) / *Ermita de San Andrés Apóstol* (Mungian)... Hagionimo horren lagun toponimoren bat baldin badao, ondoan beste errealitate bat izendatzeko erabiltzen ez denean baizik ez dugu jarri: *Agirreko Andra Maria* (Gorlizko ermita), *Arantzaiko Magdalena* (Berriatuko ermita) edota *Antzorizko Santa Katalina* (Lekeitioko ermita)...

Bukatzeko esan beharra dago sistema honek badituela zenbait eragozpen ere, izan ere halakoetan inoiz gerta dakiguke, auzoa edo herriak hagiotoponimo bat hartu duela izen, eta kasu horretan grafia desberdinak suerta dakizkiguke elkarrekin: *San Pelaio auzoa* / *Barrio San Pelaio* (Bakion) eta ondoan *San Pelaio ermita* (*Done Pelaio*) / *Ermita de San Pelayo*.

Hortaz, kasu guztietan eta tenpluei dagokienez bertsio bikoitza eman nahi izan dugu, aipatu bezala ez baititugu toponimotzat hartzen eta beraz itzulgarriak litezkeelako. Aitzitik, badago bestelako arrazoirik ere. Hain zuzen ere, euskaran den tradizio gabegiarekin apurtzea, hots, euskaraz tradizioz gabeko saila dugu adbokazioena eta beraz hagianimian ere isladatu egiten den eza da hori. Hori dela-eta, gure uste apalean, horrelako formak nahiz eta estandarizanteak izan, beharrezkoak dira hizkuntzaren normalizaziorako betiere guk egin legez ahozko forma baztertu gabe.

VI.1.5. GENERIKOAREN TRATAERAZ:

VI.1.5.1. Toponimo osatuak eta osatugabeak

Oro har, aldaeren artean generikorik gabekoa hobetsi dugu, hau da, toponimoa al bait biluztuen ematen saiatu gara. Ahal den neurrian generikoen lexikalizazioa (toponimoaren parte bihurtzea) saihestu behar dela uste dugu. Izen generiko horien erabilera hitzun arruntak, bere kompetentzian oin hartuta, gainera dezakeen errekurtso irekia da. Generikoa araututako erari eutsiz gero, bera gabeko erabilera ez dela posible ematen ari ginateteke aditzera. Hala ere, gauza jakina da lan honetan araututako leku-izenen zazpi bertsio ematen direla: toponimo soila euskaraz, toponimo soila gaztelaniaz (generikorik gabea, alegia), ofiziala (batzuetan arautu gabea), toponimo osatu kartografikoa euskaraz eta gaztelaniaz (mapetan agertu beharreko era generikodunak, alegia) eta toponimo osatu zerrendakoa hizkuntza bietan (zerrenda alfabetikoa osatzekoa, gaineratutako generikoa atzean duela). Adibidez: *Garbe / Garbe / --* (ez da auzo ofiziala) / *Garbe auzoa / Barrio Garbe / Garbe auzoa / Garbe, Barrio* (Igorreko auzoa); *Pardo / Pardo / --* (ez du izen ofizialik) / *Pardo baserria / Caserío Pardo / Pardo baserria / Pardo, Caserío* (Amorebieta-Etxanoko baserria); *Saldoja / Saldoja / --* (ez du izen ofizialik) / *Saldoja erreka-zuloa / Barranco Saldoja / Saldoja erreka-zuloa / Saldoja, Barranco* (Artzentalesko erreka-zuloa)...

Bistan denez, toponimoak *Garbe, Pardo, Saldoja...* dira eta errotulaziorako gero hornitu egiten ditugu generiko estandarrak gaineratuz, baina posible da generikorik gabeko erabilera, hau da, generiko horiek ez daude lexikalduta, ez dira toponimoaren parte.

VI.1.5.2. Generikoaren trataera mapen errotulazioan

Eztabaidatua izan den arren, badirudi Euskaltzaindiko Onomastika Batzordearen irizpide orokorra oso argia dela alor honetan. Egia esan, zeharo gai komentzionala dugu hau eta edozein irtenbide izango litzateke onargarria. Esan behar da gainera, generikoen grafiari hizkuntza ofizial biek bilatu dizkioten soluzioak ez datozela bat.

Euskaraz, gaineratutako generikoak minuskulaz eta artikulua idatzi ditugu: *Serantes mendia* (Abanton eta Santurtzin), *Aranbaltz errekea* (Mallabian eta Markina-Xemeinen), *Urko baserria* (Sopelan)...

Gaztelaniaz ordea, errotuloetan gaineraturiko generikoak letra larriaz eta artikulurik gabe idatzi dira: *Caserío Elortzabarri* (Mungian), *Fuente Katilutxueta* (Diman), *Barrio Zaramillo* (Gueñes)...

VI.1.5.3. Tokian tokiko generikoak

Ez dago oso argi noraino erabili behar ditugun tokian-tokiko generikoak eta nondik aurrera estandarrak. Oro har, toponimoaren zati kontsideratu baditugu, mantendu egin ditugu era dialektalak: *Bikosgana* (Arteaga, Orozko eta Zeberio mendatea), *Baldako txuntxurra* (Markina-Xemeingo tontorra), *Altzalegitxarkoa* (Markina-Xemeingo erreka),

Calleja el Pigazo (Artzentalesko erreka-zuloa), *Cueto la Cabra* (Villaverde Turtziozko mendi-adarra), *Regato Joyuelo* (Karrantzako erreka)...

Arrazoi gehiagoz, errepikapenak ekidin beharraz, ahoz jaso den generikoa *Izen Geografikoen Glosarioko* era normalizatuarekin bat datorrenean, ez dugu ostera ere berbera gaineratu: *Luminagaerreka* (Amorebieta-Etxanon eta Lemoan), *Abadebaso* (Bermeon), *Iturribaltza* (Munitibarren)...

36.1.1. arauarekin bat etorriz, tokian tokiko generiko lexikaldu hauek esanahiz argiak direnean, dagokien hizkuntzan ez dugu gehitu estandarrik, bai ordea beste hizkuntzako bertsioan: *Muntegigana / Cima Muntegigana* (Gautebiz Arteagako tontorra), *Asoloerreka / Arroyo Asoloerreka* (Jataben), *Elgetzubaso / Bosque Elgetzubaso* (Igorren)...

Kontrara, generiko lokala oso ezberdina denean, hiztun arruntarentzat esanahi ilunekoa bada, edo errakuntzak ekar baditzake, generiko estandarra gehitu diogu: *Lexartzaburu tontorra / Cima Lexartzaburu* (Mallabian eta Markina-Xemeinen), *Murgazearra hegala / Ladera Murgazearra* (Arteagan), *Calle del Toral erreka-zuloa / Barranco Calle del Toral* (Turtziozen)...

Jasotako generikoa lexikalduzat eman daiteke, bere esanahia jadanik ez datorrenean izendaturiko errealitatearekin bat. Kasu horietan toponimo arruntzat hartu eta hornidurazko generiko estandarra gaineratu dugu: *Kanterazarra basoa / Bosque Kanterazarra* (Mungiako basoa, ez harrobia), *Pagatza tontorra / Cima Pagatza* (Galdakao eta Zaratamoko tontorra, ez pagadia), *Bediakolea auzoa / Barrio Bediakolea* (Bediako auzoa, ez ola)...

Beste kasu batzuetan, generikoa jaso arren, beste leku-izen batean oinarrituriko erreferentzia hutsak ditugula ematen du. Erreferentzial hutsak izate horrengatik generikoak ezinbestekoak dira erabileran, baina lexikalizazio-maila ez da altua eta horrenbestez, generiko estandarrek erabiliz itzulpenak egiten ere ausartu gara, honetarako 8.3.1. arauak bide ematen digu-eta: *Angoitiaren harrobia / Cantera de Angoitia* (Zeanuriko harrobia, ahoz *Angoitian kanterea* jaso), *Agirreko iturria / Fuente de Agirre* (Gordexolako iturria, ondoan *Agirre* baserria ere jaso), *Abantoko erreka / Regato de Abanto* (gatzelaniazko eran jaso, herri hori zeharkatzen duen erreka delarik)...

VI.1.5.4. Udalburuen generikoa

Toponimoaren parte diren generiko lexikalduak ezinbestekoak dira eta bertsio guztietan agertuko dira modu batean edo bestean. Ordea, hornidura gisa errotulazioan gaineratzen ditugun generikoak arautzean, zenbait erabaki komertzional hartu behar izan dugu, irizpideetan honetarako jarraibideak ez baitaude beti zehaztuegi, seguraski afera hau toponimiari baino gehiago, lanaren estiloari dagokiolako.

Generiko kengarri hauetaz ari garelarik, aipatzekoa da udalburua den auzoa (40101 kodeduna) udalaren izenkidea denean ez dugula generikorik gaineratu: *Arrigorriaga*, *Areatza*, *Elorrio*...

Irizpide bera erabili dugu Urduñako kontzejuen kasuan (Bizkaian gaur egun Urduñan soilik daude-eta kontzejuak), kontzejuko buru den auzoari, beti izenkidea dena, generikorik gaineratu ez diogularik: *Belandia*, *Mendeika*, *Lendoñobeiti* (Urduñako auzo ofizialak)...

VI.1.5.5. Gaineratutako generikoa

Gorago esandakotik atera daitekeen bezala, errotulaziorako bertsioetan oro har, generiko estandarra gaineratu da hizkuntza bietan.

Generiko hau gehitu dugu, lehenik, toponimoak ez duenean generikorik, edo duen generikoak adierazten duen errealitate geografikoa ez datorrenean bat gaurkoarekin: *Tripaerreka basoa* (Mungiako basoa), *Andrabaso baserria* (Arrigorriagako baserria), *Aranzubia etxea* (Gueñesko etxea)...

Honen ondorioz, bigarrenik, izenean ibiltzen den generiko lexikaldua kode geografikoari dagokion estandarraren esanahi berekoa edo esparru semantiko berekoa denean, hizkuntza horretan ez dugu bigarren generikorik gaineratu, bai ordea bestean (36.1.1. araua): *Aiendagana / Cima Aiendagana* (Amorotoko tontorra), *Astoagasakona / Barranco Astoagasakona* (Zeberioko erreka-zuloa), *Errotatxarkoa / Arroyo Errotatxarkoa* (Orozkoko erreka)...

Hala ere, generiko lexikaldu hori eta beste hizkuntzarena hoscideak direnean, ez dugu ez batean ez bestean generiko estandarrik gehitzen (36.5.1. arau berria), baina betiere kodeketa geografikoari arreta emanik, generiko estandarrak zeintzuk lirerateken begiratuta eta generiko horien balizko polisemia kontuan izanik. Gainera, badirudi beste generikorik ez gaineratzeko irizpidean arrazoi gehiagok hartzen dutela parte, adibidez toponimoak genitibo egitura edukitzea, jadanik bi hitzeko izena izanik: *Neberabbarri* (Orozkoko elurzuloa, inola ere ez *Nevera Neberabbarri*), *Puntamotz* (Gorlizko punta, inola ez *Punta Puntamotz*), *Sasiko txabola* (Zeanuriko txabola, inoiz ez *Chabola Sasiko txabola*)... Kasu hauetan generikoa gaineratzeak errepikapen-zantzia ekarriko luke edozein hizkuntzatan ere eta aplikatutako irtenbideak efektu hori saihesten duela uste dugu.

VI.1.5.6. Errepideen generikoa

Errepideetan, kodeketa geografikoak bost mota desberdin bereizten ditu: 70404tik 70408ra biak barne, *lehentasuneko errepidea*, *autonomia-erkidegoko errepide nagusia*, *eskualde errepidea*, *tokiko errepidea* eta *bestelako errepideak* hurrenez hurren. Generiko konplexu horiek jartzea, maiz errotulazio arazoak sortuko lituzkeela ohartuta, edozein motatakoa izanik ere, *errepidea / carretera* generiko hutsa erabiltzea erabaki dugu: *BI-3151 Plentzia-Goikoerrota errepidea / Carretera BI-3151 Plentzia-Goikoerrota* (70407), *N-240 Tarragona-Bilbo errepidea Barazartik / Carretera N-240 Tarragona-Bilbao por Barazar* (70404), *A-2522 Ziorraga-Laudio errepidea / Carretera A-2522 Ziorraga-Laudio* (70406)...

VI.1.5.7. Generikoen itzulpenaz

Zenbait kasutan generikoa itzuli dugu, baina beti eduki behar da kontuan toponimoen itzulpena egitea ez dela zilegi. Hortaz, berau egiteko gure irizpidea, generikoaren lexikalizazio mailan izan du oinarria. Gakoa dugu generiko hori izenaren parte dela zein puntutaraino esan daitekeen neurtzea.

Genitibodun izen erreferentzialak (batez ere hidronimia alorrean, oronimian ordea oso gutxitan) itzuli egin ditugu (8.3.1. arau berria). Hala ere, toponimoak itzultzeko beldurrez ibili behar da beti. Egin ahal izateko baldintza batzuk bete behar dira: jasotako erak genitibo egituradunak izatea (*-ko*, *-en* desinentziak edo *de* preposizioa), erreferentzial argiak izatea (atal espezifikoak beste objektu geografiko bat ere izendatzea), jasotzen den generikoa arrunta edo estandarrarekin bat datorrena izatea (ez beraz *txarkoa*, *landea*, *cueto* edo halakoak). Hau da, itzulpena egin baino lehen, lexikalizazio maila minimo bat adierazten duen seinalerik ez du eduki behar toponimoak, kasu horretan ezin egin baikenezake itzulpenik. Baldintza horiek betetzen

baditu, kontsideratu dugu toponimoan agertzen zaigun generikoa ez dagoela erabat ihartuta, ez dela guztiz toponimoaren parte, eta honenbestez itzulpena egin daitekeela: *Abadiñobasoko errekea / Arroyo de Abadiñobaso* (Berriz eta Muxikan, *Abadiñobaso* izeneko basoa ere jaso delarik), *Orabilgo iturri / Fuente de Orabil* (Lemoizen, *Orabil* izeneko auzoa ere dagoelarik), *Arenaoko aldapa / Cuesta del Arenao* (Sopuertan, *Arenao* auzoa ere badagoela)...

VI.1.5.8. Bizkaiko -ea amaieradun generikoak

Gauza jakina da Bizkaiko euskararen ezaugarria dela -a berezkodun hitzetan mugatzailea gaineratzean $a+a=ea$ bokalismoa gertatu ohi dela eta bizi-bizirik dagoela hizkera arruntean. Espero zitekeen bezala, elkarrekin suertatu zaizkigu maiz hornidurazko generikoak zein generiko lexikalduak, azken hauek batzuetan mugatzailea daramatela eta beste batzuetan ez. Ondorioz, mapa berberetan *erreka-errekea*, *txabola-txabolea*, *kantera-kanterea*... generikoak elkarren ondoan errotulatu beharko zela zirudien, aldi berean honek irakurleari eman diezaiokeen inpresio txarra nolabait asumiturik.

Suerta daitezkeen kasuak hiru sailalara laburbil daitezkeela uste dugu. Lexikaldutakoak mugatuta (*txabolea* edo *errekea*), lexikaldutakoak mugagabean (*txabola* edo *erreka*) eta gaineratutakoak beti mugatuta (*txabola* nahiz *erreka*). Lehenengo biak jaso bezala utzi behar direla uste dugu, zeren posible baita toponimoetako generiko lexikalduak mugatuak zein mugagabe ibiltzea eta ez da arautze kontua mugatzaile horiek sistematikoki eta beti kendu ala gaineratzea. Toponimo bakoitzaren parte da (edo ez da) mugatzaile hori.

Dena dela, gauzak honela, mapa berean elkarren ondoan ager daitezke *erreka* eta *errekea*, *txabola* eta *txabolea*... erak eta erabiltzaileak pentsa dezake zerbait gaizki egina dagoela. Nolabait, mapen itxura kaltetzen duten egoera hauek gutxiagotan gerta zitezten, gaineratu ditugun generikoak era dialektalean ematea erabaki dugu *erreka* eta *txabola* izenen kasuan, maiztasuna ere kontuan izanik. Ondorioz, sistematikoki *errekea* eta *txabolea* generikoak jarri dira 20203 eta 40307 kodedun izenen ostean gaineratu direnean, ordezeko besterik ezer ez zutelarik edo lexikaldutako/itzulitako beste izenik ez bazuten: *Andikorta / Andikorta txabolea / Chabola Andikorta* (Abadiñon), *Katategi / Katategi errekea / Arroyo Katategi* (Elorrión), *Zubialde / Zubialde errekea / Arroyo Zubialde* (Ereñon)... Kontrara lexikaldutzat hartu ditugunak, jaso diren eran bertan utzi ditugu: *Abaderreka / Abaderreka / Arroyo Abaderreka* (Markina-Xemeinen, mugatzailerik gabe jaso), *Munikolako txabola / Chabola de Munkola* (Zaldibarren era hartan jaso eta gero gaztelaniara itzulia), *Betzuenerreka / Arroyo Betzuenerreka* (Amorebieta-Etxanon eta Diman, ahoz mugatzailea eta guzti jaso)...

Erabaki hau Enkarterri ez Bizkaiko beste eremu guztietan aplikatu da. Hau da, gaztelaniazko inkestan jasotako generikoa itzuli edo era horretako toponimoari gaineratu diogunean, generiko estandar hutsa jarri diogu, *erreka* eta *txabola* alegia: *Alcuera erreka / Regato de Alcuera* (Karrantzan), *Basozainaren txabola / Caseta del Guarda* (Zallan), *Miraflor txabola / Chabola Miraflor* (Gueñesen).

VI.1.5.9. Mendateak

Mendateetan (70414 kodea), ermitetan (60909) eta elizetan (60903) euskarazko bertsioa genitiborik gabe joan arren, gaztelaniazkoan *de* preposizioa jartzea irudituz zaigu egokiago, hizkuntza bakoitzeko joera berezkoa horixe dela uste dugulako: *Barazar mendatea / Puerto de Barazar* (Zeanurin), *San Seberino abadea eliza / Iglesia de San Severino Abad* (Balmasedan), *Santa Ana ermita / Ermita de Santa Ana* (Kortezubin)...

VI.1.5.10. Aurrien generikoa

Errotulazioa txukunagoa izan zedin eta bestelako kartografietan egin ohi denarekin bat etorrira, aurrien kode geografikoa duten eraikuntzetan (40310 kodea), betiere ezagutzeko modua izan dugunetan, jatorrizko generikoa jarri dugu (*baserria* kasu) eta ondoren parentesi artean (*aurriak*) oharra pluralean: *Akaiturri baserria (aurriak) / Caserío Akaiturri (ruinas)* (Aulestin), *Bastegiko txabola (aurriak) / Chabola de Bastegi(ruinas)* (Jataben), *San Bernabe ermita (aurriak) / Ermita de San Bernabé (ruinas)* (Otxandion)...

VI.1.5.11. Akastun generikoa

Akatsa dela uste dugulako, generikoen glosarioan baliokide bezala ematen diren *padura / marisma* (20108 kodea) kontuz tratatu ditugu. Euskarazko *padura* hitza, antza denez, nolana hiko lur bustizko aurkintzatarako da baliagarria, baina gaztelaniazko *marisma*, etimoak ondo adierazten duenez, latinezko *Mare* hitzetik heldu zaigu eta itsasoko padurei bakarrik ezarri ahal zaie. Ur gezako padurari gaztelaniaz *humedal* generikoa eman diogu eta uste dugu hau edo antzeko soluzioa gaineratu behar litzatekeela *Izen Geografikoen Glosarioan* ere. Hala errotulatu dira *Padura / Humedal* (Gatikan) eta *Saldropo padura / Humedal Saldropo* (Zeanurin), baina *Txipio padura / Marisma Txipio* (Barrikan eta Plentzian), *Telleria padura / Marisma Telleria* (Muruetan)...

VI.2. 2001-03 BIZKAIKO TOPONIMIA LANA BALORAZIO OROKORRA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aginduz Deustuko Unibertsitateko Ikerkuntza Institutuak (Deiker) Nerea Mujika Ulazia irakaslearen zuzendaritzapean egindako Bizkaiko toponimia lanean, Foru Aldundiko mapetan ezarriko diren leku-izenen arautze-faseaz egiten dugun balorazio orokorra ona da, neurri handi batean urteetako eskarmentuaren emaitza jo dezakegu-eta.

Horrelako ikerketa-arautze lanetan bi arlok baldintzatzen dute lana, bilketa bera -hori baita horrelako lanen hasiera eta iturburu- eta geroago datorren arautze lana. Eta biak egokiak izanik ere bigarrena bereziki laudagarria da. Gogoan izan arautze lan arin batek ikerketa onena ere baliogabetu ahal duela. Kasu honetan, bilketa, edo bilketak ahoz eta idatzia egin baitziren, egokia izan zen, baina askoz ere zailagoa den arautzea hobea, zinez ene ustez orain arte horrelako lan zabal batean egin den onena.

Etorkizunera begira sor litekeen beharrik handiena datutegiaren mantenimendua izan daiteke, tokian tokiko ikerketen emaitzak aztertu eta egokiak direnak, txertatzeko aukera edukitzea edota horietaz baliatuz dauden izenen gainean zuzenketak egitea, oso izango bailitzateke beharrezko, toponimiaren normalizazioa den bide luze honetan aurrera egin nahi bada behintzat. Kontuan izan behar dugu tokian tokiko ikerketek askoz ere datu zehatzago eta ugariago eman behar dutela eta aberastasun hori bildu behar dela, datuak ahalik eta zehatzenak izan daitezen, noizbait desoreka txikiak sor daitezkeen arren.

VI.2.1. ATALETZ ATALEKO BALORAZIOA

Ahozko bilketa

Ahozko lanaren balorazioa txosten berezi batean gauzatu da eta ez gara hemen osteria ere horretaz arituko. Ona izan da, nahiz eta jakina denez, gizalan guztietan bezala, hobe daitezkeen aldeak egon.

Arautze lana

Toponimoen arautze-fasea lau lagunen artean burutu da (nahiz eta osasun-arazoak kausa, haietako batek utzi behar izan zuen), Euskaltzaindiaren ordezkaria naizen honek gainbegiratuta. Lan paregabea eta zehatza, inoiz egin ez den bezalako gertatu da, ikertzaileek oso ongi eta zorrotz bete baitituzte arauak eta aplikatzean sorturiko arazoei, uste genuen bezala aurreikusita ez zeuden gertaerak agertu baitziren, irtenbide egokia eman ere egin diete. Taldea oso homogeneoa izan da eta berau irizpideak erabiltzean igarri egin da emaitzetan, ez baitago alde nabarmenik batak zein besteak egindako lana alderatzean, tokian tokiko hizkuntza aldaeren artean ematen direnak alde batera utzita noski.

Lan prozeduraz eta arauetan erabilitako zehaztasuna, eginiko emendioak eta bestelakoak biltzen dituen txostena oso egokia da, eta hor proposatutako zenbait irtenbide Onomastika batzordeak berak aztertu eta indarrean dagoen araudian gaineratu behar lituzkeela uste dugu.

Kartografia

Hizkuntza-normalizazioaren balorazio orokorra den txosten honen gaitik kanpo egon arren, toponimiaren ikertzaileok nahitaezko erabiltzaile garen aldetik, gaineratu nahi genuke zinez uste dugula oso txalogarria dela lana era digitalean burutu izana.

VI.2.2. AURRERANTZEAN HOBETU BEHARREKOAK

Euskaltzaindiaren partehartzea

Senak, eta neurri handi batean Legeak, agintzen duen moduan Akademiaren partehartzea ezinbestekoa da Euskal Herrian egin nahi den edozein toponimia lanetan, baina aurrerantzean beste era batera bideratu behar litzatekeelakoan gaude. Izan ere, Jaurlaritzak ezarritako balditzetan aurreikus zitezkeen arren, Euskaltzaindiari ez zitzaion partehartze honen inguruko ezer ere galdetu eta honek lana baldintzatzeaz gain, lagatzea ere ekar zezakeen. Eta unerren batean utzi ez bazuen, norbaiten burugogorkeriari esker izan zen. Ezinbestekoa da, ene irudiko, horrelako lanak bideratuko dituzten oinarriak finkatzean Euskaltzaindiaren iritzia eskuratzea, ikuspegi desberdinak, eta zergatik ez esan, batzuetan kontrajarriak ager daitezkeelako, alde guztien azterketa aberasgarria datekeelarik.

Toponimoen hautaketa

Arautu beharreko toponimoak aukeratzeko irizpidea geografikoa izan zen eta ardura hau geografo baten esku jarri zen. Aukera logikoa eta ona den arren, gure irudiko alde linguistikoa ere aintzat hartu behar da fase honetan. Eta azken finean iradokizunak ongi hartuak izan baziren ere (esan bezala lan-talde ona suertatu delako) sistematikoagoa izan beharko litzateke hizkuntzalarien partehartzea prozesu horretan, beti ere geografoaren lagun eta honen zerbitzura. Gure hizkuntzaen historia ere neurtu behar da neurri batean aukeraketa egitean, ez bada behintzat irizpide linguistikoetan oinarritutako beste kartografia burutu nahi, oraingo honetan bientzako aukera dago eta. Argi dago honek ez duela goitik beherako aldaketarik ekarriko, gehienbat bigarren edo hirugarren mailako toponimoez ari baikara. Askotan elkarren ondoan dauden landez, batzuk aspaldiko testigantza duena eta besteak berriz, inolako ekarpenik ez daukana, honen adibide ditugu Urduñako *Urigai*<>*El Cascajo* (086-60) edo *El valle de la Siesta* ondoan mapa berean gaineratu zen *Ujaran*.

Bertsioak, itzulpenak eta hagianimia

Euskararen legeak argi azaltzen du lekuek hizkuntza ofizial bietan izen desberdinak dituztenean, izen biak izan behar direla ofizialak, eta hori dela medio bertsio bi egitea erabaki zen. Erabaki zuzurra, hizkuntza bietako erabiltzaileak baitaude. Hala eta guztiz ere, erabaki honek zehaztasun handia behar du eta gauzatzean segitu den moduarekin ez gatoz guztiz bat.

a) Tradizio bikoitzeko toponimoak

Erabakiari jarraiki, bertsio bakoitzean dagokion hizkuntzaren izena baino ez da ageriko mapan. Hau izan behar da bidea, baina hainbat kasutan, mapen helburua den erabiltzailea gogoan izanik, ezin da estu eta zehatz segitu bide hau. Badira izen asko eta asko azken urteotan euskarak izan duen gorakada dela-eta, hizkuntzen arteko mugak gainditu eta maiz euskarazkoak izan arren erdaraz erabiltzen direnak (*Donostia, Arrasate, Tolosaldea...*). Erdal izen soilak erabiltzen direneko errepide-mapa bat gerta daiteke arazo-sortzaile, errepideetako seinaleetan erdal izena agertzen ez bada. Gainera, hainbat kasutan euskal bertsioa zokoratzeko bide eman dezake. Agian irtenbide gisa proposa liteke, oso aldenduta dauden horrelako izenak parentesi artean ematea. Gogoan izan, egungo baliabide informatikoen horrelakoak egiteko bide erraza eskaintzen dutela.

b) Generikoaren erabilera

Azterketa honetan generikorik gabeko aldaerak, edo zehatzago esanda, gehiketarik gabeko toponimo hutsak biltzen dituen aldaerak gehitu dira. Tamalez, aldaera hauek, datubasean badaude ere, ez dira mapetara eraman. Horretarako aukera egon arren, kontsultagarri jarriko diren aldaerak generikodunak izango dira beraz. Oinarrizko baldintzetan eskatzen den generikoz hornituriko izenak ematea egokia izanik ere, ez dugu uste aukera egokia berauei lehentasuna ematea, haiek ez baitira benetako izenak, bestelako arrazoiak direla medio sorturiko izenak baizik.

Izen hauek, bi eratako arazoak sortzen dituzte. Benetako izenak desitxuratzeaz gain, izen berriak eta neurri handi batean onomastika-lanetan onartezinak izan beharko liratekeen itzulpenak bideratzen dituzte. Bigarren gertaera honen adibide bat emateagatik, Diman *Bolinagako errekea* deritzona *Arroyo de Bolinaga* eran itzuli egin da, nahiz eta izen hori sekula ere erabili ez. Beste horrenbeste esan daiteke, noski, euskaraz azken mila urtetan mintzo ez den esparruaz. Agian euskara galdu den edo gaur egun erabat elebidun diren beste inguruetako egoera desberdina izan daiteke.

Itxuragaltzea sailkatzearen ondorio da. Sarritan lekuaren izaera finkoa da, *etxea*, *haitza*... baina besteetan behin-behinekoa: *soro* orain, *pinudia* bihar. Argi dago generiko guztiak ez direla maila berekoak eta ezin ditugula berdin erabili arazorik nahi ez badugu. Halaberrez eta kasu guztietan generikoa gaineratu behar denez, gauza bitxiak eta, zergatik ez esan, inoiz, gutxitan bada ere, zentzugabeko izenak ere sortu dira: *Madariagako zelaia lepoa/Collado Madariagako zelaia* edo *Bosque Roturas de Bigandi/ Roturas de Bigandi basoa*. Azken kasu honetan esaterako, *Bigandi* luberria egin zuenerane deitura da eta basoa (zehatzago pinudia) egungo egoera.

Arazo larria eta irtenbide latza duen buruhauste baten aurrean gaude, baina nola edo hala konpondu beharrekoa. Agian kasuistika zehatza osatu beharko genuke zeintzuk kasutan eman behar ote dugun generikoa (*erreka* adibidez) eta zeintzuetan ez, ematen denean nola egin behar den e.a. finkatzeko.

c) Hagionimoak

Arazo larria da hagionimoen erabilera (*Andra Maria*, baina *Zeruratzea*, *Mesedeetako*, *Edurretako*, .. dena) eta izen ofizialen arteko aldeaz gain askotan espezifikoko berezia (Arretxinaga) ere badelako. Hau gutxi balitz euskal eremuan erabiltzen den erdal izenak ere baditugu, sarri araututa baina ezezagunak diren euskal izenen ondoan: *Santiago / Done Jauke*,... Proposatzen den bidea berria eta agian harrigarria bada ere Bizkaia osotasunean aztertzeko egokiena iruditu zaigu.